


Urtebete gaztetxerik gabe

Urtebete igaro da dagoeneko Altzako Gazte Asanbladak Rutilita izeneko fabrika okupatu zuenetik. Tamalez, Rutilitatik kanporatu zituzten eta eraikina behera bota zuten.

Sara Soria 943-357037

Hilabete batzuk beranduago, Herreran hutsik zegoen "Sport 2134" izeneko etxea hartu zuten gazteok. Zoritxarrez Rutilitan gertatutakoa errepikatu zen "Sport 2134" etxean ere. Ondorioz, udazkenetik kalean dira Gazte Asanbladako kideak. Hala ere, ez dute amore emateko asmorik. Beraz, Gazte Asanblada ezagutarazteko eta indartzeko asmoz hainbat

Duela urtebete Gazte Asanbladako kideek Rutilita etxea okupatu zuten



motatako jarduerak antolatu dituzte azken boladan: bideo emanaldiak, hitzaldiak, kontzertuak eta abar.

Gaztetxearen beharra

Gazte Asanbladako kideak aspalditik aldarrikatzen ari dira Gaztetxe baten beharra. "Auzoak, azpiegiturei dago-kienez, gauza ugari ditu faltan. Beraz, beharrezkoa dugu leku bat elkartzeko eta mota guztietako kultur ekintzak antolatzeko. Toki bat edukiko bagenu, probetxu handia ate-

rako genioke", diosku Gazte Asanbladako kide batek.

Altzako gazteek, bi kanporaketa jasan ondoren kale gorrian dauden arren, gogoak eta indarra badute okupazio mugimendurekin aurrera jarraitzeko.

Asko izan dira Gazte Asanbladako kideek beren bidean aurkitu dituzten oztopoak. Hala ere, taldea indartsu dabilela dirudi. "Orain arte etxea hartu eta garbitu ondoren, bota egin gaituzte, eta horrela jendea etsitu egiten

da. Dena dela, garrantzitsuen da helburu berak ditugun gazteak elkartu egin garela. Horrek indarra eman digu", esan digute Gazte Asanbladako kideek.

Beren filosofia argia da, autokudeaketaren alde daude. "Gure ustez, gu gara antolatu nahi ditugun jarduerak hautatu behar ditugunak. Gure arau eta ordutegiak sortuko genituzke eta diru sarre- ren erabilera guk geuk kude- tuko genuke", adierazi digute gazteek.

Sinadura bilketa

Une honetan, astero astero biltzen dira. "Herrerako auzo- tegian lekutxo bat utzi digu- te. Lekua beharrezkoa da oinarrizko antolamendua lor- tzeke", diote.

Beste ekimenik ere badute eskuartean, esaterako, sinadurak bildu dituzte Eusko Trenbideak-ek Herrerako topo geltokian hutsik dagoen etxea eskatzeko.

Alboka
Taberna
DONOSTIA

Café con Leche
Marta Sarasua
Jose Luis Gallo

BAR - ASADOR
Jaiyribel
Autonomia 9, behea
© 943 45 83 72 20006 DONOSTIA

Erdialdeko txokorik onenak

Bar Alex

Gosariak
Ogitartekoak
Plater bereziak
Larramendi 10, Tel.: 943 460225



La Antigua Cervecería
(Gure-Txokoa)

Eguneroko bazkaria

San Martín 38
DONOSTIA

ESNAOLA TABERNA

Berezitasunak:
PINTXO ETA KAXUELITAK

Moraza kalea 13, 20006 Donostia
Tel.: 943 45 93 94 - 943 45 09 47